

Elkoro

Antton Izagirre

Egun hauetan jakin dugu Elkorori kendu egin diotela azken esku-burdina, libre gelditu dela kontrolpean zuen kate motzetik aske. Haserrea eta samina sortzen digu bere mailako pertsonak urteetan urrutiko kontrol-gailuari lotua bizi behar izan duela jakiteak. Pertsonaren duintasuna hankaperatzeko hartutako erabakiak dira halakoak.

Agian gazte askorentzat oharkabean pasatu da, albiste bat gehiago egunkarietan edo zoriontzeko eta pozteko arrazoia izan da. Baina Jose Luis Elkoro gertuagotik ezagutu eta bere ibilbide politikoa, pertsonala eta bere gizatasun maila eza-

gutzeko ohorea izan dugunontzat amorragarria egin zaigu, preso, eskumuturra edo hanka tramankulu lotsagarrira lotua izan duela pentsatze hutsa.

Euskal Herrian izan dira eta badira aipu, gorazarre edo merezimendu handiko gizon eta emakumeak, horretan ez dago zalantzarik, baina horien artean, bere bizitza osoan Euskal Herriarekiko erakutsi duen konpromiso eta atxikimenduarengatik, Elkororen izenak hizki handitan idatzia beharko luke, gaur egungo Euskal Herria pentsaezina bailitzateke haren ekarpenak aintzat hartuko ez bagenitu.

Frankismo garaiko eta ondorengo urteetan alkateen mugimenduen buru izate-

tik, Bergarako alkate, ahaldun nagusirako hautagai, militante koherente, zintzo eta nekaezina. Ikur argia, bere ibilbide politikoa eta pertsonala ezagutu dugunontzat. Bere umiltasunak eta ahots pausatuak ez dute inon gerrarik sortu, baina ezin izan diote barkatu damurik gabeko zuzentasun politikoa. Horregatik izan dute preso.

Gaur egungo alkate eta politikari askorentzat aipamen hutsa izan liteke Elkoro, baina mesedegarri lukete hark egin eta esandakoetan erreparatu eta bidelagun hartuko balute haren ekarpen politikoa eta pertsonala. Euskal Herriaren independentziarako bidean lekukotasuna eta memoria kolektiboa eskainiko baitigu. •

«Eta? Hori txarra da, ala?»

Amagoia Mujika

Liskarrean aritu dira pilotalekua nork erabiliko. Jolaserako baino, liskarrerako daudela iruditu zait eta sesioaren ikusle bihurtzea erabaki dut. Konpon daitezela bakarrik.

Zaharrenak dozena bat urte dauzka; txikienak, dozena erdi. Itsusikeriatan dabil-tza, nork handiagoa bota. Irainak ilaran, betiko irainak, gure garaikoak eta oraingoak. Irainak ez dira modaz pasatzen, beti egokitzen dira garaiaren parean. Eta, azkenean, zaharrenak, erabat sututa, aurpegia gorrituta, sekulakoa esatera doanaren plantak eginez, oihuka bota dio parekoari: «Marikoia!!». Ez da harririk erori zerutik, ez da pitzatu pilotalekuko lurra, ez da ezer

izugarrikerik gertatu. Baina lasai antzera liskarrari begira dagoen mutiko batek galdera egin du: «Eta? Hori txarra da, ala? Galdetu besterik ez dut egiten...». Isildu eta *chupa-chupsa* miazkatzen segitu du, mingain urdinduarekin.

(Bere gurasoei kontatu behar diet).

Galdera bat besterik ez da izan. Besteek errietan segitu dute, baina galdera hor geratu da. Badut itxaropena galdera hori neska-mutiko zirikatzaile horien belarrietatik norabait sartu dela, eta hor barruan pausatu. Eta noizbait loratuko dela behin airean geratu zen kezka.

Izan ere, nork ez dauka barruan noizbait umetan erantzun gabeko galderaren bat?

Haurra zela entzundako esaldiren bat? Txikiegia zelako ulertu ez zuen egoeraren bat? Akordatzeko naiz oraindik nola larritu nintzen lagun batek bere amak «drogeria» bat zuela esan zuenean. (Drogeria=Droga saltzen duten denda).

Haurrek dena entzuten dute, nahiz eta akaso ez duten dena ulertzen. Aipatu ditudan bi mutiko horien gurasoen jarrera erraza da aurreikusten: «Marikoia» esan duenak seguru hori ez duela etxean ikasi. Eta, besteak, hori txarra ote den galdetu duenak, etxean jaso du lezioa. Nola da posible norbanakoak hain irekiak, anitzak eta toleranteak izanik elkartzeko garenean hain jendarte homofobia osatzea? •